

Miopiari aurea hartuz

Mioopia uste baino arazo larriagoa da garatutzat jotzen diren herrialdeetan. EEBBetan eta Europan, esaterako, eskolaumeen % 80 inguru miopea da; joera hori askoz txikiagoa da hirugarren munduko lurraldeetan.



New Yorkeko ikerlari-talde batek burutu berri duen ikerketaren arabera, lau eta zortzi urte bitarteko umeek osatzen dute miopia garatzeko arrisku-taldea.

New Yorkeko ikerlari-talde batek burutu berri duen ikerketaren arabera, lau eta zortzi urte bitarteko umeek osatzen dute gaixotasun hori garatzeko arrisku-taldea. Adin horretan, izan ere, umeen begiek ez dute fokalizatzeko

gaitasunik, baina orduantxe hasten dira telebista maiz ikusten, irakurtzen edota idazten, hau da, begiak jasan ezin dituzten esfortzuetara behartzen. Ikerlari horien iritziz, gaixotasunari aurre egiteko azaldu aurretik zuzentzeko neurriak hartzea komeni da. Hori dela eta, hurrengo ikasturtea hasi orduko betaurrekoak jarriko dizkiete adin-tarte horretan dauden

eta miopeak ez diren 20 bat ikasleri.

Kolesterolaren arrisku berriak

Kolesterol-mailari eusteak bihotzekoak saihesten dituela gauza jakina da. Aitzitik, depresioak eta portaera-arazo larriak sor ditzakeela oraintsu

jakin dugu. Finlandiako ikerlari-talde batek baieztatu ahal izan duenez, kolesterol-maila baxua dutenen artean ohi baino altuagoa da suizidiorako joera. Ikerlari horiek plazaratu duten hipotesiaren arabera, kolesterola zelula guztietan dago. Kolesterol-maila aldatzen denean, zelula horietako portaera bera ere aldagarri bihurtzen da. Teoria berri hori baieztatzekotan, orain arteko uste asko baztertu egin beharko dugu.

Tiroideko minbizia eta Txernobileko haurrak

Tiroideko minbizia gero eta ugariagoa da Txernobileko zentral nuklearren inguruetan bizi diren umeen artean. Bielorrusia, Errusia eta Ukrainako Osasun-erakundeek jakitera eman dutenez, tiroideko minbizia da une honetan duten arazorik larrienetarikoa. Zentral nuklearreko erreaktorean leherketa gertatu zenez geroztik, inguru horietan bizi diren umeen artean tiroideko minbizia pairatzen dutenen portzentaia ikaragarri handiagotu da: batezbeste, 10.000 ume-tatik batek du tiroideko minbizia. Dakigunez, tiroideak hazieran eta garapenean eragiten du eta metabolismoaren abiadura bizkortu egiten

du. Ikerlari askok orain arte ukatu egin badu ere, haurrengan eragin zuzenagoa izan zuen Txernobileko zentral nuklearren matxurak. Ukrainako eta Errusiako ikerlari-talde batek baieztatu duenez, leherketa gertatu zenean inguruetan bizi ziren haur gehienek tiroideko minbizia dute edo garatuko dute hurrengo urteotan. Zentralak igorri zuen erradiazioa era askotara hedatu zen eskualde osoan zehar. Aire-poluizioak baino kalte handiagoa sorrarazi zuten elikagaiek umeengan, esneak eta barazkiek bereziki. Malformazioak eta atrofia dira Txernobil inguruko belaunaldi berriek jaso duten ondarea.

Tiroideko minbiziari aurre egitea ia ezinezkoa gertatzen da Ukraina eta Bielorrusian. Bertako osasun-zentruetan ez dute erradioterapia egokia eskaintzeko modurik eta Alemaniako ospitaletara bideratzen dira tratamendu hori behar duten umeak. Edonola ere, epe motzerako irtenbidea baino ez da hori eta kanpoko laguntza gehiago beharko dela ohartarazi dute.

